

BACCALAURÉATS GÉNÉRAL & TECHNOLOGIQUE

SESSION 2015

BASQUE - LV2

Séries **ES/S** – Durée de l'épreuve : **2 heures** – coefficient : **2**

Série **L** Langue vivante obligatoire (LVO) – Durée de l'épreuve : **3 heures** – coefficient : **4**

Série **L** LVO et langue vivante approfondie (LVA) – Durée de l'épreuve : **3 heures** – coefficient : **8**

Séries **ST2S** et **STMG** – Durée de l'épreuve : **2 heures** – coefficient : **2**

Séries **STI2D**, **STD2A**, **STL** – Durée de l'épreuve : **2 heures** – épreuve facultative

ÉPREUVE DU 23 JUIN 2015

ATTENTION

Le candidat choisira le questionnaire correspondant à sa série :

Série L (LVA Y COMPRIS) : questionnaire page 4/5

Séries ES/S/STMG/ST2S/STI2D/STD2A/STL : questionnaire page 5/5

L'usage des calculatrices et de tout dictionnaire est interdit.

Barème appliqué pour la correction.

Compréhension	<i>10 points</i>
Expression personnelle	<i>10 points</i>

Dès que le sujet vous est remis, assurez-vous qu'il est complet.
Ce sujet comporte 5 pages numérotées de 1/5 à 5/5.

Semeari

5 Mixel, ezarri bainauk dudazko trantzean,
kantatzerat noakik, pena bihotzean ;
esperantzaz beteak ginenak artean,
hire azken aldiko berriak hartzean,
hotz ikara ilun bat sartu duk etxean.

10 Urtatsetako karta ginian lekuko :
etxerako hintzala heldu den neguko ;
berri hau izan zian gu denen gostuko,
geroztik asmo horri egin diok uko,
ez ahal haut, gaixoa, betikotz galduko!

15 Diru eskasia duk eman estakuru,
ekarriko ote dauk sekulan sosegu ?
Pausarik hartu gabe uda eta negu,
zer egiteko dituk horrenbertze diru ?
Gutiagorekila biziak gaituk gu.

20 Hemen hintzan denboran hi hintzan lehena :
diruaz gutienik axola huena,
amodioz eginik lanik gogorrrena ;
ama batek sor diron ume zintzoena,
harrokaren gainean bizi hindaikena.

25 Maite hituen behi, ardi ta bildotsak,
hemengo mendi eta dohain baliosak,
etxeari loturik gaduzkaten gauzak ;
zer irabazten dugun, gogoan har ezak,
hauen amodioa galtzen badauk sosak.

30 Hi orroit araztea dukek alferretan
etxea daukagula hire beharretan ;
aunitz egin behar duk Amerika hortan,
hunek galtzen duena indarraren faltan
ordaindu behar baduk dolar paperretan.

35 Lau haurridetarikan hi haiz hautatua,
etxeko nagusitzan hik daukak eskua ;
denek utzia ditek hiretzat lekua ;
kontsidera dezakan jina duk ordua
hemengo lemazaintzat hiauren burua.

40 Laster ezkontzeko zaik haurride gaztena,
bertze bien ondotik deramagutena ;
amari errex jauzten zaiok hasperena,
gure etxean sendi duk uda azkena,
hi haiz uda berria ekar hezokena.

45 Ekar dezokek bainan ez utzi gerora,
diruaren dirdiran ez hadila zora ;
orai haizela gazte ekar zak gogora,
landu gabe utzirik sobera denbora,
baratzerik onena ez bailaike lora.

Bainan ez nitek nahi, o seme maitea,
desafia dezakan kontraka haizea :

50 sort etxearen karga bortxarat hartzea ;
hobe baituk hi baino etxea galtzea,
nahiz tristea izan gure zahartzea.

55 Tristea litaikela ez diat dudatzen,
etxe amodioa ez baita mugatzen ;
ikustea kafi hau sasuz inguratzen
eta gure bazterrak bertzen eskuratzen,
gogoratzerat ere ez nauk menturatzen.

60 Entzutean etxeko agoni ezkila,
bihotzaren bakea non aurki, non bila ?
Ganbarak hutsak eta sukalde ixila,
biziaren arbola betikotzat hila,
hori ikusi gabe lurperat nadila!

65 Bainan, seme, nik hitan badiat fedea,
kartsuki hartzen baituk hik eginbidea,
amodioz entzunik aitaren galdea,
behingotzat hor utziz Amerik'aldea,
bilatuko dukala etxeko bidea.

70 Semea, urrundurik sosaren peskizan,
agertzen duk zer aita erromesa nizan ;
zintzoki jarraik hadi hi hire bizitzan,
ni baino aita hobe izaiteko gisan,
hire semeak ez dezan joaiterik izan.

Fernando AIRE « XALBADOR », Odolaren mintzoa, 2006 (164-167)

QUESTIONNAIRE À L'ATTENTION DES CANDIDATS DE LA SÉRIE L LVO & LVA

(LVO = Langue Vivante Obligatoire et LVA = Langue Vivante Approfondie)

I. ULERMENA : (10 puntu)

1. Nor da narratzailea ? Nori mintzo da ?
2. Zer da bertsu hauen doinua ? Zendako ?
3. Semeak zer estakuru erabiltzen du etxera ez etortzeko ? Altxa hitzak.
4. Zer uzten du semeak aitaren ustez ?
5. Haurrideetan zein leku du seme horrek ?
6. Zer ondorio du semearen leku harek euskal ohiduran ?
7. Zer erran zuen semeak urtatseko karta batean ?

Question uniquement à l'attention des candidats de la série L (LVA)

8. Zure ustez Mixelek zergaitik hautatu du joaitea ?

II. ADIERAZPEN PERTSONALA : (10 puntu)

Pour les candidats de la série L – LVO et L - LVA :

1. Mixel, Xalbadorren semeak erantzungo lukeen gutuna asma eta idatz ezazu.

OU

2. Kaliforniako « Chino Basque Club » euskal etxeak lan eskaintza bat zabaldu du bi hilabeterendako : euskara eta dantza irakatsi behar zaizkie euskal etxeako kideei. Motibapen gutun bat idatz ezazu euskal etxeako zuzendariari, zure burua presentatuz, eta motibazioak emanaz (Euskal kulturaren zabaltze nahia, familiako historiarekin loturak, bidaiatzeko gogoia, ...).

UNIQUEMENT pour les candidats de la série L – LVA :

1. Xalbador eta bere semearen arteko gutun trukaketa aipatzen digu dokumentuak. Uste duzu, XXI.mendearen guraso eta hurren arteko idatzizko trukaketarik badela ?

QUESTIONNAIRE À L'ATTENTION DES CANDIDATS DES SÉRIES ES, S, STMG, STI2D, STD2A, STL et ST2S
--

I. ULERMENA : (10 puntu)

1. Nor da narratzailea ? Nori mintzo da ?
2. Zer da bertsu hauen doinua ? Zendako ?
3. Semeak zer estakuru erabiltzen du etxera ez etortzeko ? Altxa hitzak.
4. Zer uzten du semeak aitaren ustez ?
5. Haurrideetan zein leku du seme horrek ?
6. Zer ondorio du euskal ohiduran semearen leku harek ?

II. ADIERAZPEN PERTSONALA : (10 puntu)

1. Mixel, Xalbadorren semeak erantzungo lukeen gutuna asma eta idatz ezazu.

OU

2. Kaliforniako « Chino Basque Club » euskal etxeak lan eskaintza bat zabaldu du bi hilabeterendako : euskara eta dantza irakatsi behar zaizkie euskal etxeako kideei. Motibapen gutun bat idatz ezazu euskal etxeako zuzendariari, zure burua presentatuz, eta motibazioak emanez (Euskal kulturaren zabaltze nahia, familiako historiarekin loturak, bidaiatzeko gogoia, ...).